

Net Hurbil

PELLO ZUBIRIA

Obreiroen zigorra: bizi laburragoa eta ezintasun gehiagoz

Herritarrak gaur lehen baino urte gehiago bizi direla jakina da, emakumeak gizonak baino luzeago irauten duela ere bai. Baina batz besteko datuak nola banatzen dira gizarte mailen arabera? Eta ezintasunak kontuan hartuta? Frantziako datuak azaldu dira, eta Euskal Herrirako balio lezakete.



LANGILEEN ZIGOR BIKOTTZA: ezintasunezko urte gehiago eta bizi laburragoa”. Izenburu hori deigarri egiten da jakinez gero Frantziako Institut National d’Etudes Demographiques (INED) erakunde ofizialak ipini duela 2008ko urtarrileko *Population et Sociétés* buletin. Gehienetan horrelako organismoek egia latzenak koadro estatistiko ezin ulertuzkotan gorde ohi dituzte eta.

Informea honela hasten da: “Frantzia obreroek batz beste koadro exekutiboek baino bizi laburragoa dute. Urte gutxiagoz bizitze horrek esan nahi ote du osasun txarrezko urte gutxiago jasaten dutela? 2003an Frantzia osasunaz egindako inkestan oinarriturik, horrela ez dela erakutsi dute Emmanuelle Cambois, Caroline Laborde eta Jean-Marie Robine-k. Obreroek koadroek baino bizi laburragoa dute eta gainera hauek baino urte gehiago egiten dituzte ezintasunekin”.

Frantzia gizonzkoek batz beste ia 78 urtera iristeko itxaropena dute eta emakumeek 84ra. Bizia luzatuz irabazi diren urteak osasun txukunez ematen ote dira, ala ezintasun eta menpekotasun egoera kaxkarretan? Bizia luza-tzea bezala ezintasunezko urteak nola daude banatuta maila sozialen arabera?

Galderoi erantzuteko, ikertzaileek alderatu dituzte bizi itxaropena eta osasun onez pasatako urteak, horrela ateratzeko herritar batek ezintasun gabe irauteko aurrean dauzkan urteak.

Frantziako estatistiketan hiru ezintasun maila nagusi daude aurreikusita. I motako ezintasuna da funtzio edo zentzumenen mugaren bat eduki bai baina eguneroko bizimoduan oztupo nagusirik ez dutenena. II motakoa da 6 hilabete baino gehiagoz eguneroko bizimodua oztopatu eta etxeko lanetan bezala lanbide profesionalean ondorioak dauzkana. III motako ezintasuna daukate norbere burua artatzeko eginkizunak ere –garbitzea, janzteia, jatea...– nekez egiten dituztenek.

Frantzia 35 urte baino gehiagoko herritarren herenak dauka I motako ezintasunen bat, %18,5ek II motakoa eta %4,5ek IIIkoa. 35 urteko gizonzko batek espero dezake 43 urte gehiago bizitzea eta emakumeak 49. Urte horietatik, I motako ezintasunik gabe gizonak 15 pasako ditu eta emakumeak 20; II motako ezintasuna gabe gizonak 34 eta emakumeak 37; eta III motakoa gabe gizonak 40 eta emakumeak 44.

Ezintasun gogorrenekin (III motakoekin) gizonzkoek batz beste 3 urte ematen dituzte eta emakumeek 5, ia beti 60 urteak pasa ondoren. 60 urtetara iritsi den gizonzko batek badaki geratzen zaizkion urteen erdiak ezintasunen batek ukituta pasa beharko dituela. Emakumeak gizonzkoak baino urte gehiagoz irauten du bizirik baina ezintasunezko urteak ere gehiago izango ditu. Asko laburtuz gero, esan daiteke 35 urteko pertsona batek beste 30

urte dauzkala aurretik inolako ezintasunik gabe bizitzeko. Beti ere batz besteko zenbakiak direla jakinda.

Exekutiboak, luzeago eta hobeto

Ikerketan honela sailkatu dituzte herritarren bizibideak: koadro exekutiboak, erdi mailako lanbideak, nekazariak, autonomoak, enplegatutak, obreroak eta jarduerarik gabek. Bizi esperantza lehenetik azkenera gutxituz doa, nabarmen. Frantsesez *cadre* deitzen diren gizonzkoek –exekutiboak, baina baita maila handiko enplegatutak ere– 35 urte dituztenean beste 47 gehiago geratzen zaizkie; hau da, batz bestekoari baino 4 gehiago eta obreroei baino 6 gehiago. 47 urte horietatik 34 batere ezintasunik gabe pasako dituzte, hau da, obreroek baino 10 gehiago. 35 urteko obrero batek kalkulatu behar du 24 gehiago geratzen zaizkiola batere ezintasunik gabe.

Emakumeetan, bizi itxaropenean ez dago halako tarterik exekutiboek eta obreroen artean, baina bai ezintasunik gabeko urteen itxaropenean: 35 urteko andre exekutiboak ezintasunik gabeko 35 urte gehiago dauzka aurretik eta aldiz obreroak 27 baino ez. Antzeko ezberdintasunak errepikatzen dira, emakumeetan bezala gizonzkoetan, II eta III motako ezintasun larriagoei dagokienez.

Ikusten denez, koadro exekutiboek denbora luzeagoz bizi dira ezintasunik



Eus sinatzen duen batek dauka ipinita argazki hau Interneten. Karrikan konponketa lanetan ari direla iragartzen duen panoari umore oneko norbaitek marra batzuk egin dizkio eta ikurrean obreroak palaz darabilen hondar pila usain txarreko zimaur bihurtu du, euli eta guzti. INED erakundearen kontuetan, Frantziako gizonezkoen %34 katalogatzen da obrerotzat, eta emazteen %12. Horiek dira gizarte mailen artean bizi itxaropenik laburrena dutenak eta urte horien barruan gaixorik edo ezintasunean denbora gehien pasa beharko dutenak. Egoera zertxobait hobea dute gizonezkoen %10 eta emakumeen %35 osatzen duten enplegatuek. Horiek eta jarduerarik gabeko pertsonak osatzen dute gizartean okerren bizi diren erdia. Obreroak baino okerrago daude jarduera profesionalik gabeko gizonezkoak, guztien %3, denetan bizi itxaropen baxuena dutenak (apenas 65 urte) eta beren azken urteak osasun egoerarik txarrean pasako dituztenak.

gabe obreroak baino, eta tartea sakonagoak dira gizonezkoen kasuan. Tartea irauten du zahartzaroan. 60 urtean, ezintasunik gabeko urte gehiago daukate aurretik exekutiboek obreroek baino. Bestalde, urte gutxiagotan bizi arren emazte obreroek urte gehiago pasatzen dituzte ezintasunekin (22, I motakoekin) exekutiboek baino (16).

Exekutiboen eta obreroen artean gainerako lanbideen egoerak daude mailakatuta. Erdi mailako profesionalen, nekazarien eta profesional independenteen bizi itxaropena exekutiboen baino zertxobait laburragoa da. Enplegatuen kasuan, gizonezkoetan hauen bizi baldintzak hurbil daude obreroenetatik eta aldiz emakumeetan gertuago goragoko kategorietakoetatik.

Denetan egoerarik txarrean jardue-

tarik gabeko *-inactif* frantsesez- pertsonena da. Atal honetako gizonezkoak ez dira asko, populazioaren %3 baizik ez, baina beren bizi esperantza 65 urtean dago; emakumeak askoz ugariagoak dira, %21, eta hauen itxaropena sexu bereko obreroen tankerakoa da. Ezintasun mailarik gogorrenak ere kategorian honetakoek nozitzen dituzte.

INEDeko ikerlariok ikasgai hau atera dute azterketa honetatik: “Orokorrean esan dezakegu, zenbat eta bizi itxaropena luzeago orduan eta laburrago dela ezintasuna jasanez pasa beharreko denbora”. Ondoen bizi direnek irauten dute gehien, eta gehien bizi izan direnak egon dira ondoen. Eta alderantziz: gutxien bizi direnek, zigor horretaz gain bigarrena ere jasan beharko dute, bizimodu latzagoa eramatea.

Arau orokor horren salbuespena nekazariena da. Hauen bizi itxaropena nahiko handia da –aurretik duten erdimailako lanbidekoena baino zertxobait hobea– baina aldiz batere ezintasunik gabeko urte gutxiago gozatuko dituzte proportzioan. Nekazariekin gertatzen da alde batetik enpresaburu txikiekin parekatzen direla, baina bestetik lan fisiko asko egin behar dutela, obreroen gisakoa, horrek jartzen dituelarik istripu eta eritasunen mendeago herritarren batz bestekoa baino.

Hona ikerketaren azken predikua: “Gizon eta emazte obreroak desabantailan daude ez bakarrik heriotzaren aurrean: bizi laburrago baten barruan, batz bestekoak baino denbora gehiago pasatzen dute ezintasun egoeraren batean. Eskuzko langintzek oro har era berezian jasaten dituzte ezintasun funtzional fisiko edo zentzumenezkoak, hauekin bizi beharko baitute 60 urtetik gora geratzen zaizkien urteen %60an. Desabantaila bikoitz hau gertatzen da, batetik bizi osoan daudelako gaixotasun eta istripuen arriskupean, beren lan eta bizi baldintzek horrela eraginda, eta bestetik osasun sistemen baliabideetara ere neurri diferentean iristen direlako”.

Gai honekiko interesa daukanak, INEDen webgunean PDF formatuan aurkituko ditu informea osorik eta datu zehatzak koadro txit argigarrietan sailkatuta. Klase diferentziak gaur ere badirela berresteko... edo aseguru enpresek gutaz egiten dituzten kalkuluez pittin bat gehiago jakiteko. ■

<http://www.argia.com/nethurbil.php> helbidean, gai honi buruzko informazio gehiago eta Interneteko loturak.



Produkturik onenak,
Zinkunegi Optikan

Aukerarik zabalena
betaurreko graduatu,
ukipen-lente,
audiofono eta
eguzkitako
betaurrekoetan.

ZINKUNEGI OPTIKA

Hernani kalea - 20004 DONOSTIA
e-posta: zinkunegi@euskalnet.net
TEL.: 943 420 624

K A L I T A T E A
2008ko otsailaren 17a